# Xedapen Orokorrak

## MERKATARITZA, KONTSUMO ETA TURISMO SAILA

### Zk-6057

284/1996 DEKRETUA, abenduaren 3koa, urte hasierako merkealdien (neguko merkealdien) iraupena ezartzeko dena.

Merkataritzaren Iharduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko 24. atalak merkealdietako salmentak arautzen ditu eta merkealdien publizitatea egiteko urtean bi aldi edo garai ezartzen ditu, aldi bakoitza bi hilabetekoa izango delarik, gehienez ere.

24.1 atalak indarrean dagoen legedira jotzen du merkealdiei dagokienez; hauxe dio: «Indarrean dagoen legediaren arabera, bertan aipatzen diren aldi edo garaietan soil–soilik erabili ahalko da merkealdiak hitza».

Gutxikako Merkataritza Antolatzeari buruzko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen 25. atalean (1996ko urtarrilaren 17ko EBO, 15 zk.) merkealdiak arautzen dira. Atal horretako 1. puntuan garai bi ezartzen dira urteko: bata, urtearen hasieran eta bestea, udako oporren inguruan; 2. puntuan, bestalde, garai bakoitzaren iraupena finkatzen da: astebetekoa gutxienez eta bi hilabetekoa gehienez, autonomi elkarteek finkatzen duten egunen barruan.

Indarrean dagoen legedian agindutatakoa betetzeko, beharrezkoa da negu parteko merkealdien iraupena finkatzea Euskal Autonomi Elkarterako, epe horretara egokitu beharra izango dutelarik merkataritza jarduera EAEn betetzen duten enpresariek.

Ondorioz, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko abenduaren 3an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* Negu parteko merkealdien iraupena (neguko merkealdiena, alegia) urtarrilaren 7tik martxoaren 31ra bitartekoa -biak barne- izango da Euskal Autonomi Elkartean.

Merkealdien iraupena: astebetekoa gutxienez eta bi hilabetekoa gehienez.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE COMERCIO, CONSUMO Y TURISMO

### N°-6057

DECRETO 284/1996, de 3 de diciembre, por el que se establece la temporada de rebajas correspondiente al período inicial del año. Rebajas de invierno.

El artículo 24 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial (BOPV n.º 111, de 13 de junio), regula la Venta con rebaja, limitando la publicidad de la misma a dos períodos o temporadas por año con una duración máxima de dos meses por temporada.

En dicho artículo 24.1 hay una remisión a la legislación vigente en lo que se refiere a las temporadas de rebajas. Así, textualmente se dice: «la denominación de rebaja se utilizará exclusivamente para aquellas ventas que se realicen, conforme a lo dispuesto en la legislación vigente durante los períodos o temporadas que se señalen en dicha legislación».

El artículo 25 de la vigente Ley 7/1996, de 15 de enero, de Ordenación del Comercio Minorista (BOE n.º 15, de 17 de enero de 1996), regula la temporada de rebajas. El punto 1 de la misma establece dos temporadas anuales: una iniciada al principio de año y la otra, en torno al período estival de vacaciones. El punto 2 determina la duración de cada período de rebajas: mínima de una semana y máxima de dos meses, dentro de las fechas concretas que fijarán las Comunidades Autónomas.

Con el fin de cumplir lo dispuesto en la normativa vigente, se hace preciso determinar la duración del período invernal de rebajas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, al que habrán de ajustarse los comerciantes cuya actividad comercial radique en el territorio de esta Comunidad.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 3 de diciembre de 1996,

DISPONGO:

*Artículo único.–* El período invernal de rebajas, conocido como Rebajas de Invierno, en la Comunidad Autónoma del País Vasco será el comprendido entre el 7 de enero y el 31 de marzo, ambos inclusive.

La duración del mismo será: mínimo de 1 semana y máximo de 2 meses.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko abenduaren 3an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburua,
ROSA DIEZ GONZÁLEZ.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

**Zk-6058**

23 ERABAKIA, 1996ko abenduaren 9koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak Tartekaritza Batzordean izango dituen ordezkariak izendatuz Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako akordioa argitara dadila agintzen duena.

Tartekaritza Batzordea arautzen duen ekainaren 30eko 13/1994 Legeko 7.2 atalean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko ekainaren 1eko 155/1993 Dekretuko 12.1.b) atalean xedatzen denaren ondorioz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutakoa beteaz, hauxe

ERABAKI DUT:

*Atal bakarra.*– Eusko Jaurlaritzak Tartekaritza Batzordean izango dituen ordezkariak izendatuz Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko apirilaren 4an hartutako akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Erabaki honen eraskinean jasotzen da akordio hori.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko abenduaren 9a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
ENRIQUE LUCAS MURILLO DE LA CUEVA.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Consejera de Comercio, Consumo y Turismo,
ROSA DIEZ GONZÁLEZ.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**N°-6058**

RESOLUCIÓN 23, de 9 de diciembre de 1996, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo de Consejo de Gobierno por el que se designa a los representantes del Gobierno Vasco en la Comisión Arbitral.

En virtud de lo dispuesto en los artículos 7.2 de la Ley 13/1994, de 30 de junio, por la que se regula la Comisión Arbitral, y en el 12.1.b) del Decreto 155/1993, de 1 de junio, sobre el Boletín Oficial del País Vasco, y dando cumplimiento a lo acordado por el Consejo de Gobierno,

RESUELVO:

*Artículo único.*– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 4 de abril de 1995, por el que se designa a los representantes del Gobierno Vasco en la Comisión Arbitral, que se contiene como Anexo a la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 1996.

El Director de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
ENRIQUE LUCAS MURILLO DE LA CUEVA.